



DIRU-LAGUNTZEN PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2017

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA

1. Kirol federazioen programak	2
2. Kirol lehiaketan antolaketa	3
3. Kirol lehiaketetan parte hartzea.....	4
4. "Kultura Ondarea" Saria	5
5. Kultura ondarearen ikerketa	6
6. Kultura ondarea balioztatzea.....	7
7. Museoak eta bildumak.....	8
8. Toki-erakundeei beren artxibo sistema jartzeko edota sendotzeko diru-laguntzak	9
9. Publikoak ez diren artxiboak antolatu, digitalizatu eta zabaltzeko diru-laguntzak	10
10. Irakurketa sustatzeko eta Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean txertatuta dauden liburutegi publikoen zerbitzuak erabiltzeko diru-laguntzak.....	11
11. Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegietako liburu-funtsak berri edo/eta handitzeko diru-laguntzak	12
12. Liburutegietan teknologia berriak	13
13. Musika	14
14. Dantza	15
15. Dantza zirkuitua	16
16. Ikus-entzunezko garapena	17
17. Ikus-entzunezko produkzioa.....	18
18. Antzerki profesionalen prestakuntza	20
19. Antzokietan egoitza proiektuak.....	21
20. Kale antzerkia bultzatuz	22
21. Antzerki produkzioa	23
22. Arte plastiko eta ikusizkoak	24
23. Gure Artea Sariak.....	25
24. Literatura argitalpenak.....	26
25. Euskadi Literatura Sariak	27
26. Irudi sorkuntza	28
27. Kultura sorkuntza.....	29
28. Sorkuntzako kultura guneak (Sorgune).....	30
29. Bitartekotza eta berrikuntza kultura arloan (Bitartez)	31
30. Jaialdiak.....	32
31. Alderdi politikoen fundazioak.....	33
32. Euskara toki-erakundeetan (ESEP)	34
33. Euskara gizarte bizitzan (Euskalgintza)	35
34. Euskara hedabideetan (Hedabideak).....	36
35. Euskara gaztelaniazko hedabideetan	37
36. Euskara ingurune digitalean	38
37. Euskara entitate pribatuetan (Lanhitz)	39



1.- Izenburua

Kirol federazioen programak

2.- Araua

AGINDUA, 2016ko abenduaren 20koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baita euskal kirol-federazioen 2017ko kirol-programak finantzatzeko diru-laguntzak. (EHAA, 2016ko abenduaren 30a, 248 zk.).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Helburua da Euskadiko kirol-federazioei laguntza ekonomikoa ematea, euren kirol modalitateari dagozkion autonomia erkidegoko eremuko kirol jarduera eta lehiaketak bultzatzeko, kalifikatzeko, baimentzeko, arautzeko eta antolatzeko.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

46 federazioek diru-laguntza jaso zuten 2017an. Bat kanpoan geratu zen, eskaera epez kanpo aurkezteagatik.

Magnitudeak: 46

Eragina gizartean: helburuak bete ditu diru-laguntza honek, beraz, erabat eragingarria eta erabilgarria dela adierazten dugu.



1.- Izenburua

Kirol lehiaketen antolaketa

2.- Araua

AGINDUA, 2017ko uztaileko 11koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez iragartzen eta arautzen baitira 2017. urteko goi-mailako kirol-lehiaketak antolatzeko diru-laguntzak. (EHAA, 2017ko uztailaren 17a, 135 zk.).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Helburua da goi mailako kirola sustatzea, batetik, Euskal Herrian oinarrizko kirola garatzeko funtsezko faktorea delako eta, bestetik, estatu-mailako eta nazioarteko kirol-lehiaketa ofizialetan errepresentazio-funtzioa duelako.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

32 eskaerak egon ziren eta 31k diru-laguntza jaso zuten. Lehiaketa guztiak goi-mailakoak dira eta estatu-mailako edota nazioarteko kirol esparruan eragin handia sortu dute.

Magnitudeak: 32

Eragina gizartean: helburuak bete ditu diru-laguntza honek, beraz, erabat eragingarria eta erabilgarria dela adierazten dugu.



1.- Izenburua

Kirol lehiaketetan parte hartzea

2.- Araua

AGINDUA, 2017ko irailaren 12koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez ezartzen baita diru-laguntzak emateko erregimena 2017an egingo edo hasiko diren kirol-lehiaketa ofizialetan parte hartzeko, nazioarteko eremua eta izaera dutenetan, kategoria absolutuan, eta emakumezkoen liga nazionaletan, kategoria absolutuan. (EHAA, 2017ko irailaren 19a, 179 zk.).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Kirol-lehiaketa ofizialetan parte hartzeko, nazioarteko eremua eta izaera dutenetan, kategoria absolutuan, zuzendutako diru-laguntzak dira. 2017an egingo eta hasiko diren emakumezkoen liga nazionaletan, kategoria absolutuan, diru-laguntza hau jasoko dute.

Helburua da euskal kirola nazioarteko esparruan egon dadin, eta kirol-jarduera sustatzea ere bai.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

23 eskaerak egon ziren eta 20k diru-laguntza jaso zuten. Nazioarteko lehiaketetan parte hartu zuten klubak eta kirolariak izan dira eta horren ondorioz, kirol esparruan eragin handia sortu dute.

Magnitudeak: 23

Eragina gizartean: helburuak bete ditu diru-laguntza honek, beraz, erabat eragingarria eta erabilgarria dela adierazten dugu.



1.- Izenburua

“Kultura Ondarea” Saria

2.- Araua

AGINDUA, 2016ko abenduaren 16koa, Kultura eta Hizkuntza Politika sailburuarena, 2017. urterako “Kultura Ondarea” Saria iragarri eta arautzeko dena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Sari-deialdi honen xedea da Euskal Kultura Ondarearen ezagutza zabaltea. Euskal Autonomia Erkidegoko, 2016-2017ko ikasturteko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren eta laugarren mailetako, Batxilergoko Lehenengo Mailako eta Lanbide Heziketako Erdi Mailako Heziketa Zikloetako lehenengo mailako ikasleak dira Sariaren jasotzaileak.

Sari honen bitartez ikasleen arteko talde-lana sustatuko da (zentroetako irakasleek zuzenduko dutena), baita sare sozialetan Kultura Ondarearen ezagutza zabaltea ere.

“Kultura Ondarea” Sariaren helburua da ekimena, berrikuntza, ekintzailtza-gaitasuna, sormena eta gizarte-garapena bultzatzea hezkuntza-alorreko eremu guztietan, Euskal Kultura Ondare materialaren zein ez-materialaren forma guztiak ezagutuz eta horiei balioa emanez.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Datuek erakusten dute 2017ko Kultura Ondarea Sarian bideoen kopurua ikusgarri handitu dela. Zehazki, azken edizio honetan ia %65 handitu da eta sari hau irabazi nahi duten Zentroyen kopurua %12,5 handitu da.

Saria egiaztatzeko Diploma bat eta bisitaldi kultural bat Irlandara da hiru talde irabazleentzat.



1.- Izenburua

Kultura ondarearen ikerketa

2.- Araua

AGINDUA, 2017ko abuztuaren 31koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, 2017-2018 epean euskal kultura-ondarearen babesaren arloari aplikatutako ikerketa-lanak egiteko diru-laguntzen deialdia egitekoa.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Helburua da 2017 eta 2018 artean urte anitzeko garapena duten eta hauei buruzko ikerketa-proiektuak diruz laguntzea: elementu material eta/edo ez materialak, berauen identifikazioa eta, hala dagokionean, euskal kultura-ondarearen zati bezala berrezagutze formala eta babes juridikoa ahalbidetzen duten balioak dituztenak. Laguntza hauek jaso ahal izateko nahitaezko baldintza da proiektu hauek ikerketa basikoaz haratago doan helburua izatea, modu horretan horien emaitzak ikertzen den kultura-ondareari aplikatu ahal daitezen. Baldintza hori justifikatzeko dugu ikerketa basikoak jada badauzkalako Jaurlaritza honen doktoretza aurreko eta ondorengo beka eta laguntzen deialdiak, eta gainera Foru Aldundiek urtero dituzte kultura-ondarearen, arkeologikoa hain zuzen ere, ikerketa basikorako berariazko diru-laguntza programak.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

22 proiektu aurkeztu dira, eta horietatik 12 diruz lagundu ahal izan dira, hau da, %50 baino zerbait gehiago.

22 proiektuetatik 2, nahiz eta eskatutako gutxieneko puntuaketan gainditu, ez dira diruz lagundu, Aginduan aurreikusitako aurrekontuko partida agortu delako.



1.- Izenburua

Kultura ondarea balioztatzea

2.- Araua

AGINDUA, 2017ko urriaren 5ekoa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, Euskal Kultura Ondarearen garrantzia azpimarratu eta hedatzeko 2017-2019 aldirako diru-laguntzetarako deialdia egiten duena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Euskal Kultur Ondareari buruzko 7/1990 Legeak, 106 artikuluan, aurreikusten du Autonomia Erkidegoko eta bere Lurralde Historikoetako Herri Administrazioek duten betebeharra bere eskumeneko lan publikoen aurrekontuen ehuneko bateko balioa gutxienez gordetzeko legean aurreikusitako helburuak betetze aldera.

Arau hori garatuz eman zen 204/1998 Dekretua, uztailaren 28koa, zeinaren bidez diru-atal hori gordetzea erregulatzen duten arauak onartu ziren, eta Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari dagokionez, ahalbidetzen du aurrekontu-kontsignazio bat egitea zeinarekin Kultura Sailak aurrekontu-atal horri lotutako helburuak bete ahal dituen.

Horregatik, eta gordetako diru-atal horretako kopuruak leku egokira irits daitezen eta egiaz bere helburua bete dezaten, Agindu hau sortu zen, zeinaren bidez diru-laguntzen deialdia egiten den, eta diru-laguntzak eskatzeko eta esleitzeko modua eta baldintzak arautzen diren "ehuneko bat kulturala" deitutakotik datorren horretarako gordetako diruarekin.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Aurrekontu-programaren magnitudeei dagokienez, ekitaldi honetan eman diren laguntzen zerrenda ikusi ondoren, egiaztatu da aurkeztutako proiektuen eta eskatutako kopuruaren garrantzia dela eta, soilik 31 jarduera finantzatu ahal izan direla aurkeztutako 71etatik.



1.- Izenburua

Museoak eta bildumak

2.- Araua

AGINDUA, 2017ko abuztuaren 18koa, Kultura eta Hizkuntza Politika sailburuarena, zeinaren bidez iragartzen eta arautzen baitira 2017. urteko Euskadiko museo eta bildumetarako diru-laguntzak.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntza hauen bidez, jarduera-ildo estrategiko hauetan eragina izango duten proiektuak egin daitezkeen bultzatu nahi da:

- a) Bilduma kudeatzea eta hari buruz jakiteko modua hobetzea.
- b) Erakusketa iraunkorrak hobetzea eta aldi baterako erakusketak antolatzea.
- c) Funtzio hezitzailea, ludikoa eta kulturala sustatzea beren jardun-eremuan.
- d) Beren jarduera-eremuarekin zerikusia duen ezaguera sortzea eta hedatzea.
- e) Kudeaketa hobetzea eta berrikuntza sustatzea.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

25 entitatek bultzatutako 47 proiektu aurkeztu ziren, eta 39 diru-laguntzak eman zitzaizkien 23 entitateei. Beraz, esan daiteke diru-laguntza hauek museoen jardueran oro har eragin handia izan dutela, 2017ko Aurrekontuen memorian aurreikusitako diru-laguntzen kopurua (41) baino txikiagoa bada ere.

Emandako diru-laguntzen diru-kopurua guztira 600.000 euro izan zen.

Diru-laguntzak eskatzen dituzten museo eta bilduma gehienak tamaina txikia eta ertaineko entitateak dira, Euskadiko esparruan banatzen direnak. Gainera, entitate horiek beraien inguruko komunitateekin batera, museo eta bildumen funtsak osatzen duten ondare materiala eta immateriala hedatzeko jarduerak bultzatuz eta, aldi berean, beraien kultura balioak berreskuratzen eta babesten lagunduz.



1.- Izenburua

Toki-erakundeei beren artxibo sistema jartzeko edota sendotzeko diru-laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2017ko ekainaren 29koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, toki-erakundeei beren artxibo sistema jartzeko edota sendotzeko diru-laguntzak emateko modua arautu eta horretarako 2017. ekitaldirako deia egiten duena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Aginduak Euskadiko Artxibo Sistemaren artxibo politikan ezinbesteko garrantzia dauka eta epe erdi eta ertainera artxibo zerbitzuak egonkortu eta sendotzeko ezinbesteko tresna da. Helburuak hauexek dira, besteak beste, ondoko jarduerak bultzatzea: a) Artxibo-zerbitzuak abian jartzea, antolatzea (artxiboko dokumentuak sailkatu, ordenatu eta deskribatzea) edota mantentzea; b) Deskribatzeko tresnak sortzea edo hobetzea; c) Dokumentu-funtsak baloratzea eta aukeratzea; d) Kultura-zabalkunderako artxibo-jarduerak bultzatzea; e) Mankomunatatuko artxibo-zerbitzuei eustea; f) Artxibo-dokumentuak digitalizatzeko jarduerak burutzea.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Deialdiaren zenbatekoa 290.000 eurokoa izan da.

2017an 83 erakunderen 93 eskaera jaso dira eta guztira 74 programa izan dira diruz lagundutakoak. Behin proiektuak abian jarri eta gero, lortutako emaitzak oso onak dira: a) Toki-administrazioko erakundeen esku dagoen dokumentu-ondare aberatsa "betiko" antolatuta gelditzen da; b) Diru-laguntza deialdien bidez, toki-erakundeak dokumentu-ondareaz arduratzera eta sentsibilizatzerara animatzen dira, eta behin antolatuta edukita funts horiek gizartera hedatzera: digitalizatutako dokumentuak irudiak Interneten bidez edota erakusketen bidez zabalduz; c) Dokumentu ondarea herritarren eskura jartzen da, eta webgunearen bidez (Dokuklik), munduko edozein txokotara zabaltzen da.



1.- Izenburua

Publikoak ez diren artxiboak antolatu, digitalizatu eta zabaltzeko diru-laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2017ko abuztuaren 18koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, publikoak ez diren artxiboak antolatu, digitalizatu eta zabaltzeko diru-laguntzak ezarri eta deialdia egiten duena 2017ko ekitaldirako. (EHAA, 2017ko abuztuaren 21a, 158 zk.).

3.- Diru-laguntza programaren azalpen laburra eta helburuak

Helburua da partikular, familia, erakunde, elkarte eta abarrekin lankidetzan aritzea, haien jabetzako artxibo funtsak antolatzeko eta ondoren hedatzeko, batez ere, Euskadiko Artxibo Historikoaren webgunearen bidez. Programa gehienek emaitza izaten da artxiboaren inentarioa, horixe baita baliabide nagusia ondoren kontserbazio edota digitalizazio programak diseinatu ahal izateko.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2017ko ekitaldirako aurrekontu orokorretan 170.000 euroko diru kopurua bideratu zen programa honetara, horrela 15 eskatzaileek 18 eskaera aurkeztu zituzten eta horietatik 14 proiektu diruz lagundu ahal izan ziren.

Mota honetako programa baten arrakasta (kontuan izanda horrek dakarren inpaktua gizartean, eta jasotako eskaeren kopurua eta kalitatea) jarraitzean eta egonkortasunean datza. Lortutako emaitzak oso pozgarriak direla iruditzen zaigu, egiten den inbertsioa kontuan hartuta. Lortutako emaitza batzuk hauexek dira: 1) Betiko antolatzen da jabe pribatuen esku dagoen ondare dokumental aberatsaren zati bat; 2) Ekimen pribatua sektore honetan inbertitzera animatzen da; 3) Sare publikoetan ondarearen alde oso esanguratsuak integratzen dira, eta herritarren esku jartzen; 4) Jaurlaritzaren ikerketa zerbitzua aberasten da Internet bidez, Dokuklik jada funtsezko erreferentzia bihurtu da Euskadiri buruzko edozein ikerketa egiteko orduan.



1.- Izenburua

Irakurketa sustatzeko eta Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean txertatuta dauden liburutegi publikoen zerbitzuak erabiltzeko diru-laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2017ko uztailaren 19koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, irakurketa sustatzeko eta Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean txertatuta dauden liburutegi publikoen zerbitzuak erabiltzeko diru-laguntzak arautzeko eta horien deialdia iragartzeko dena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Helburua zera da: haur eta gazteen artean irakurketa eta liburutegi publikoen erabileraren sustapena eta garapena lantzea.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

150 eskaera espero baziren ere azkenean 154 izan dira burutu direnak.

Adierazle guztietan aurreikuspenak bete eta gainditu dira, lehenengoan izan ezik (formakuntzari dagokiona). Azken urteetan errepikatzen ari den kontua da. Ikusten denez, udalek gastua gutxitzea erabaki dute liburutegietako profesionalei zuzendutako prestakuntzari dagokionez. Beste jarduera guztiak, aldiz, era egokian betetzen ari dira, liburutegiei eta beren zerbitzuen eskaintzei lotuta baitaude. Horrela, ipuin kontalariak (bere aldaera guztietan) eta irakurketa klubak dira liburutegietan gehien antolatzen dituzten jarduerak.

Horrekin batera, aipatu antolatutako ekintzen emaitzak eta horiekin lortutako eragin soziala ona izan dela. Irakurketa sustatzea eta liburutegi zerbitzuak erabiltzea liburutegi publiko ororen egintzen ardatz dira.



1.- Izenburua

Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegietako liburu-funtsak berritu edo/eta handitzeko diru-laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2017ko ekainaren 22koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, 2017. urtean Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegietako liburu-funtsak berritu edo/eta handitzeko diru-laguntzak emateko modua arautzen eta horretarako deia egiten duena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Sareko liburutegietako liburu-funtsak berritu eta handitzeak, liburutegietara informazio bila bertaraten diren erabiltzaileen beharrak asebetetzea ahalbidetzen du. Irakurketarako materialen eskaintza erakargarriagoa bihurtzen da erabiltzaileentzat eta eragin zuzena du liburutegietako maileguen eta liburutegietako bazkide kopurua handitzean.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Diru-laguntza deialdiko liburutegi berrien arlora 3 eskaera aurkeztu ziren eta 2ri eman zitzaien diru-laguntza.

Funtsak berritzeko 180 eskaera aurkeztu ziren eta denak jaso zuten diru-laguntza.

Horri esker, liburutegiek, beraien funts-katalogoak berritu eta aberastu egin dituzte, argitalpen berrienak erabiltzaileen eskura jarritz. Online sarean, 261.703 ale berri sartu ziren 2017. urtean.



1.- Izenburua

Liburutegietan teknologia berriak

2.- Araua

AGINDUA, 2017ko abuztuaren 30ekoa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baita Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegi publikoetan teknologia berriak ezartzeko edo/eta garatzeko diru-laguntzak emateko modua, eta laguntza horien deialdia iragartzen.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Liburutegi publikoetan informazio teknologien ezarpena eta garapena ahalbidetzen dituzten ekintzak lagundu.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Aurrekontu programak 254 ordenagailu eta 460 eskaner, irakurgailu optiko eta abarren berriztatzea aurreikusten zuen.

100 eskaera izapidetu dira, eta horien bidez mahai-gaineko ordenagailuak, ordenagailu eramangarriak, monitorea, etab., erosteko 110 laguntza eman dira. Horiekin batera, eskanerrak, irakurgailu optikoak, liburu elektronikoak, lapurretaren aurkako sistemak, auto-mailegurako makinak, programak erabiltzeko baimenak, etab., erosteko 138 laguntza eman dira.

Horrek hobekuntza nabarmena suposatzen du bai liburuzainen eguneroko lanean baita erabiltzaileen kontsultetan eta funtsen erabileran ere. Beraz, herritarrei zuzendutako liburutegi zerbitzuen eskaintzaren onerako izango da.



1.- Izenburua

Musika

2.- Araua

AGINDUA, 2017ko maiatzaren 3koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, musika jarduera profesionalerako diru-laguntzak emateko modua arautzen duena. (EHAA 86 zk., 2017ko maiatzaren 9a).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen bitartez, musika jarduera profesionalak sustatu nahi dira, hain zuzen ere, partituren edizio inprimatuak, musika banakako proiektuak, musika ekimen enpresarialak eta musika programazioa.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Deialdi honetarako aurreikusita zeuden baliabide ekonomiko guztiak (500.000 €) erabili dira, eta haren bitartez 77 pertsonak edo entitatek jaso dute musika jardueretarako laguntzak:

<i>Arloa</i>	<i>Eskaerak</i>	<i>Baiezkoak</i>	<i>Aurrekontua</i>	<i>Emandakoa</i>
Partiturek editatzeko	7	7	30.000 €	30.000 €
Banakako proiektuak	48	41	135.000 €	135.000 €
Ekimen enpresarialak	19	16	195.000 €	195.000 €
Musika programazioa	13	13	140.000 €	140.000 €

Aurrekontu programan jasotako indikatzaileak eta magnitudeak eta lortutako emaitzak:

- Lagundutako musika proiektu kop. urtean 56; Emaidza 74
- Lagundutako musika kontzertu kop. urtean 61; Emaidza 65



1.- Izenburua

Dantza

2.- Araua

AGINDUA, 2017ko maiatzaren 3koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, 2017. urtean Dantza sustatzeko diru-laguntzak emateko arauak ezarri eta deialdia egiten duena. (EHAA 91 zk., 2017ko maiatzaren 16a).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen bitartez, dantza jarduerak sustatu nahi dira, hain zuzen ere, honako jardueraren modalitate hauek bultzatuz: koreografia sorkuntza laburrak, konpainiak sendotzea, ekoizpena eta profesionalentzako etengabeko prestakuntza eta laguntza.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Agindu honetarako aurreikusita zeuden baliabide ekonomiko guztiak (450.000 €) erabili ziren. Deialdi honen bitartez, 38 entitate edo pertsonak jaso dute dantzarako laguntza, beraz, esan ahal dugu, programa oso eraginkorra dela.

<i>Arloa</i>	<i>Eskaera kopurua</i>	<i>Emandako diru-laguntza kopurua</i>	<i>Hasierako diru kopurua</i>	<i>Emandako diru kopurua</i>
Sorkuntza koreografikoa	12	7	28.800 €	22.400 € *
Konpainiak sendotzea	11	6	110.000 €	110.000 €
Dantzak-lanak I	20	8	60.000 €	60.000 €
Ekoizpenak II	23	10	200.000 €	206.400 € *
Etengabeko prestakuntza eta laguntza	8	7	51.200 €	51.200 €

*Eskabideak eta eskatutako diru-kopuruak kontuan harturik, Aginduaren 2. artikuluko 2. puntua aplikatuz, Sorkuntza koreografiko modalitatetik 6.400 euro eraman dira Ekoizpenak II modalitatera.

Aurrekontu programaren magnitudeei dagokienean:

- Lagundutako dantza proiektu kopurua urtean: 21
- Dantzako profesionalentzako etengabeko prestakuntzarako eta laguntzarako proiektu kopurua urtean: 10



1.- Izenburua

Dantza zirkuitua

2.- Araua

Agindua, 2016ko abenduaren 28koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, Euskadiko Antzoki Sarearen dantza-zirkuituan parte hartzen duten dantza-konpainientzako diru-laguntzak arautzen eta haietarako deialdia egiten duena. (EHAA 248 zk., 2016ko abenduaren 30ekoa).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen bitartez dantza sustatu nahi da, dantza-ikuskizunen programazioa bermatuz. Horrela, alde batetik, herritar guztiei ziurtatzen zaie kultura eskaintza eskuragarri izatea eta kalitatekoa, eta, bestetik, sektorearen profesionalizazioari bultzada ematea bilatzen da.

Laguntza hauek Sarearen antzokien programazioetan ikuskizunen bat emanez parte hartzen duten dantza-konpainiei zuzenduta dago. Ikuskizunak Eusko Jaurlaritzak bultzatutako dantza-zirkuituan sartutako antzokietan eman behar dira, betiere.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Agindu honetarako aurreikusita zeuden baliabide ekonomiko guztiak (140.000 €) erabili ziren –salbu eta bertan behera geratu zen emanaldi bati esleitutakoa-.

Deialdi honen bitartez 28 entitate edo pertsona fisiko jaso dute laguntzak Sarean taularatutako emanaldietarako.

Guztira 34 dantza-lan taularatu dira 68 emanalditan.

Aurrekontu programan 70 dantza-emanaldi aurreikusten ziren.



1.- Izenburua

Ikus-entzunezko garapena

2.- Araua

AGINDUA, 2017ko uztailaren 12koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, 2017. urtean, ikus-entzunezkoen arloan garapenaren aldeko diru-laguntzak emateko arauak ezarri eta deialdia egiten duena. (EHAA 136 zk., 2017ko uztailaren 18koa).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdi honen helburu nagusia ikus-entzunezkoen produkzioaren aurreko jarduerak sustatzea da eta jarduera horien artean nabarmentzekoa da gidoiaren garapena, ikus-entzunezkoen sektoreak ekoizten dituen obren kalitate eta bideragarritasun handiagoa bultzatuz.

Diru-laguntza hauen xedea:

- a) Zinema edota telebistarako lanak: banakako proiektuak eta sailak izan daitezke, fikziozkoak, animaziozkoak zein sortze-dokumentalak.
- b) b) Multimedia-lanak: eduki artistiko eta kultureko proiektuak.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2017an programa honen gehienezko zenbateko orokorra 300.000 eurokoa izan zen. Banaketa honako hau izan zen: 57 eskaera jaso ziren, lagundutako proiektuen kopurua 19 eta 300.000 euro emandako kopurua.

Aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak:

- Kultura ekoizpena dinamizatzea.
- Lagundutako ikus-entzunezko proiektu kop. urtean: 35 proiektu.



1.- Izenburua

Ikus-entzunezkoa produkzioa

2.- Araua

AGINDUA, 2017ko ekainaren 28koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, 2017. urtean, ikus-entzunezkoen arloan produkzioaren aldeko diru-laguntzak emateko arauak ezarri eta deialdia egiten duena. (EHAA 125 zk., 2017ko uztailaren 3koa).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdi honen helburu nagusia kulturaren ikuspegitik gure lurraldean hain garrantzitsu eta beharrezkoa den ikus-entzunezko azpiegitura finka dadin sustatu eta laguntzea da. Horretarako, deialdi honen bidez, ondorengo ekimenak sustatzen dira:

1.- Film luzeen eta dokumentalen produkzioa:

- a) Zinemarako diren fikziozko film luzeak: ikus-entzunezko obra, hirurogei minutu edo gehiagoko iraupena duena eta zinema-aretoetan merkatal ustiapenerako dena.
- b) Aurrekontu txikiko zinemarako diren fikziozko film luzeak: ikus-entzunezko obra, hirurogei minutu edo gehiagoko iraupena duena eta zinema-aretoetan merkatal ustiapenerako dena, eta aurrekontua 800.000 eurokoa baino txikiagoa baldin bada eta honako baldintzetako bat betetzen badu:
 - Filmaren jatorrizko bertsioa euskaraz izatea.
 - Zuzendariaren lehenengo edo bigarren film luzea izatea.
- c) Zinemarako diren animaziozko film luzeak: ikus-entzunezko obra, hirurogei minutu edo gehiagoko iraupena duena eta zinema-aretoetan merkatal ustiapenerako dena.
- d) Sortze-dokumentalak: Errealitatetik hartutako gaia duten proiektuak; lanak originala izan behar du eta gai zehatz bati buruzko ikerketa edo azterlana, gutxienez merkataritza-ordu beteko iraupena dutenak eta zinema edota telebistarako direnak.

2.- Film laburren produkzioa: Edozein euskarritan egindako filmak hartuko dira, iraupen gomendatua 60 minutu baino gutxiago dutenak.



4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2017an programa honen gehienezko zenbateko orokorra 2.260.000 eurokoa izan zen. Banaketa honako hau izan zen:

<i>Modalitatea</i>	<i>Eskaerak</i>	<i>Baiezkoak</i>	<i>Emandakoa</i>
Produkzioa, fikziozko film luzeak	9	5	1.280.000 €
Produkzioa, aurrekontu txikiko fikziozko film luzeak	6	1	80.000 €
Produkzioa, animaziozko film luzeak	4	2	500.000 €
Produkzioa, dokumentalak	25	7	240.000 €
Produkzioa, film laburrak	63	16	160.000 €

Aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak:

- Kultura ekoizpena dinamizatzea.
- Lagundutako ikus-entzunezko proiektu kop. urtean: 31 proiektu.



1.- Izenburua

Antzerki profesionalen prestakuntza

2.- Araua

AGINDUA, 2016ko abenduaren 22koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, antzerkiko profesionalak prestatzeko programa eta jarduerak garatzeko 2017. urtean diru-laguntzak emateko arauak ezarri eta deialdia egiten duena. (EHAA 248 zkia., 2016ko abenduaren 30ekoa).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen bitartez, antzerkiko profesionalak prestatzeko dauden egitarauak eta jarduerak sustatu nahi dira, antzerki arloan dauden prestakuntza beharrei erantzun nahian.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Agindu honetarako aurreikusita zeuden baliabide ekonomiko guztiak (88.000 €) erabili dira.

Programaren errealizazioa hauxe izan da:

<i>Arloa</i>	<i>Eskaerak</i>	<i>Baiezkoak</i>	<i>Aurrekontua</i>	<i>Emandakoa</i>
Prestakuntza integrala	6	6	83.000 €	83.000 €
Prestakuntza arlo zehatzak	3	2	5.000 €	5.000 €

Aurrekontu programan jasotako indikatzailak eta magnitudeak eta lortutako emaitzak:

- Antzerkirako prestakuntza integrala helburu duten ikastaroetan izandako ikasle kop. urtean: 75; Emaidza 177
- Antzerkirako prestakuntza berezitua helburu duten ikastaroetan izandako ikasle kop. urtean: 30; Emaidza: 32



1.- Izenburua

Antzokietan egoitza proiektuak

2.- Araua

AGINDUA, 2016ko abenduaren 23koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko antzokietan egoitza-proiektuetarako 2017. urtean diru-laguntzak emateko arauak ezarri eta deialdia egiten duena. (EHAA 248 zk., 2016ko abenduaren 30ekoa).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen bitartez erantzun nahi izan zaio sektoreak sarritan erreibindikatu duen sektore publikoaren eta pribatuaren arteko elkarlana bultzatzearen beharrari. Sektore publikoa da nagusiki antzokien jabea, aldiz produkzioa sektore pribatuaren eskuetan dago. Arte eszenikoen iraupenerako ezinezkoa dira zubiak eraikitzea bi mundu horien artean eta egoitza programak tresna ezin hobeak dira ditugun bitartekoei ahal den etekin handiena ateratzeko.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Edizio honetan ez dira aurreikusitako emaitzak lortu. Programa honen bitartez 3 egoitzen programaren oinarriak sendotzeaz gain, ez da lotu proiektu berriagoak mantentzea edo berriak sortzea.

Programaren errealizazioa hauxe izan da:

<i>Arloa</i>	<i>Eskaerak</i>	<i>Baiezkoak</i>	<i>Aurrekontua</i>	<i>Emandakoa</i>
Egoitza programak	4	3	80.000 €	65.000 €

Aurrekontu programan jasotako adierazleak eta magnitudeak eta lortutako emaitzak:

- Antzerki konpainien egoitza programa kop. urtean, antzoki publikoetan: 4; Emaidak 3



1.- Izenburua

Kale antzerkia bultzatuz

2.- Araua

AGINDUA, 2016ko abenduaren 23koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, aire zabaleko gune publikoetan egiten diren arte eszenikoen ikuskizunen programak garatzeko 2017. urtean diru-laguntzak emateko arauak ezarri eta deialdia egiten duena (Kale antzerkia bultzatuz programa). (EHAA 248 zk., 2016ko abenduaren 30ekoa).

3.- Diru-laguntza programaren azalpen laburra eta helburuak

Oraingo krisi ekonomikoak eragin handia du arte eszenikoen alorreko kultur programazioan, eta horrek kalte handia egiten dio, besteak beste, kale antzerki arloko enpresa-egituraren jasangarritasunari. Egoera honen aurrean kezkatuta eta jakitun udalek ahalegin ekonomiko handia egiten dutela, programa hau dugu aire zabaleko arte eszenikoen programazioak bultzatzeko eta zirkuitu baten oinarriak sendotzeko.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Programa honen bitartez udaletako kale antzerki arloko programak mantentzea eta hainbat kasutan indartzea lortu da. Guztira 208 emanaldi lagundu dira 50 udaletan.

Programaren errealizazioa hauxe izan da:

<i>Arloa</i>	<i>Eskaerak</i>	<i>Baiezkoak</i>	<i>Aurrekontua</i>	<i>Emandakoa</i>
Kale Antzerkia bultzatuz	58	50	100.000 €	100.000 €

Aurrekontu programan jasotako indikatzaileak eta magnitudeak eta lortutako emaitzak:

- Kaleko ikuskizun eszenikoetako kontratu kop. urtean: 175; Emaidza 208



1.- Izenburua

Antzerki produkzioa

2.- Araua

AGINDUA, 2017ko martxoaren 9koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, antzerki-produkzioarako 2017. urtean diru-laguntzak emateko arauak ezarri eta deialdia egiten duena. (EHAA 60 zk., 2017ko martxoaren 27koa).

3.- Diru-laguntza programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen bitartez, izaera profesionala duten antzerki-jarduerak sustatu nahi dira, produkzioa ahalbidetzen duten prozesu desberdinak diruz lagunduz.

Programa honetako lau modalitateekin lortu dugu antzerki arloan dauden egoera ezberdinei era egokian erantzutea. Konpainien produkzioak lagundu ahal izan dira, konpainia sortu berriek aukera izan dute beren lehen produkzioak gauzatzeko, finkatutako konpainiei eskaini zaie laguntza programa iraunkorragoa beren proiektuak bidera ditzaten eta gainera hitzartutako zirkuitua duten produkzioetarako laguntzekin lortu dugu bermatzea diruz lagundutako produkzioen zabalkuntza gure erkidegoko antzokietan.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Programaren errealizazioa hauxe izan da, aurrekontua 850.000 eurokoa izanda:

<i>Arloa</i>	<i>Eskaerak</i>	<i>Baiezkoak</i>	<i>Aurrekontua</i>	<i>Emandakoa</i>
Sormen egonaldiak	1	1	60.000	15.000 €
Produkzioak	30	9	150.000 €	195.000 €
Hitzartutako zirkuitua duten produkzioak	11	6	190.000 €	190.000 €
Finkatutako antzerki taldeak	8	4	450.000 €	450.000 €

Aurrekontu programan jasotako indikatzaileak eta magnitudeak eta lortutako emaitzak:

- Sortutako antzerki ekoizpen berri kop. urtean.: 20; Emaidza 28



1.- Izenburua

Arte plastiko eta ikusizkoak

2.- Araua

AGINDUA, 2017ko martxoaren 8koa, kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, Arte Plastiko eta Ikusizkoen eremuan jarduerak sustatzeko eta garatzeko 2017ko ekitaldiko diru-laguntzak emateko arauak ezarri eta deialdia egiten duena. (EHAA 49. zk., 2017ko martxoaren 10eko).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen helburua 2017an zehar arte plastiko eta ikusizkoen arloan burutu diren jardueretarako diru-laguntzak ematea izan da.

Diruz laguntzen diren modalitateak honako hauek dira:

1. Sustapen-zabalkundea.
2. Argitalpenak: euskarri desberdinak erabiliz egindako argitalpenak egitea, beren xedeak Euskal Herriko arte garaikidea zabaltzea eta bertako artistak eta haien lana sustatzea izanik.
3. Sorkuntza-ekoizpena: proiektuak egitea, ardatza baldin bada arte ekoizpena edo ikerketa proiektuak lantzea.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Programaren errealizazioa hauxe izan da:

<i>Arloa</i>	<i>Eskaerak</i>	<i>Baiezkoak</i>	<i>Aurrekontua</i>	<i>Emandakoa</i>
Sustapen-zabalkuntza	26	8	81.000 €	63.035 €
Argitalpenak	54	13	95.000 €	112.928 €
Ekoizpena	124	35	240.000 €	238.000 €
Guztira	198	56	416.000 €	413.000 €

Aurrekontu programan jasotako adierazleak eta magnitudeak eta lortutako emaitzak:

- Ikusizko arteen zabalkunderako lagundutako proiektu kop. urtean 25; Emaidza 23
- Ikusizko arteetan sorkuntza eta ekoizpenerako diruz lagundutako proiektu kop. urtean 36; Emaidza 35



1.- Izenburua

Gure Artea Sariak

2.- Araua

AGINDUA, 2017ko otsailaren 15ekoa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, arte plastikoak eta ikusizkoak sustatzeko Gure Artea sariak arautu eta horietarako deialdia egiteko dena. (EHAA 34.zk., 2017ko otsailaren 17koa).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen helburua arte plastikoak eta ikusizkoak sustatzea da. Haien bitartez, saritutakoak egindako lana aitortu nahi da eta Euskadiko arte garaikidean eta kulturaren izan duten ekarpena errekonozitu.

Hiru sari banatzen dira, modalitate bakoitzeko bana. Modalitateak eta zenbatekoak:

- a) Ibilbide artistikoa aitortzeko saria: artista saritzen da bere ibilbide artistiko osoagatik: 18.000 €.
- b) Sorkuntza-lana aitortzeko saria: artista saritzen da azken urteetan egindako lanarengatik: 18.000 €.
- c) Ikusizko arteen arloan agenteek egindako lana aitortzeko saria: edozein agente saritzen da Euskal Autonomia Erkidegoko arte plastiko eta ikusizkoen arloan egindako ekarpenagatik: 18.000 €.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2017ko saridunak honako hauek izan dira:

- a) Ibilbide artistikoa aitortzeko saria: M. Luisa Fernandez Olivera.
- b) Sorkuntza-lana aitortzeko saria: Alaitz Arenzana eta María Ibarreche, Sra Polaroiska taldearen kideak.
- c) Ikusizko arteen arloan agenteek egindako lana aitortzeko saria: Azala, espacio de creación y alojamiento rural S.L.

2017ko sari-emate ekitaldia Donostiako Tabakalera antolatu da, ekainaren 15ean.

Aurrekontu programan jasotako indikatzaileak eta magnitudeak eta lortutako emaitzak:

- Emandako Gure Artea sarietan, emakumezko saridun kop. urtean: 1, Eraitza 2
- Aurkeztutako Gure Artea sarietarako emakumezko hautagai kop. urtean: 4, Eraitza 9
- Emandako Gure Artea sari kop. urtean: 3, Eraitza 3
- Aurkeztutako Gure Artea kandidatura kop. urtean: 15, Eraitza 17
- Euskadiko prentsan saridunen eta bere arte lanen aipamen kopurua urtean 8, Eraitza 11
- Gure Artea sari emate ekitaldian bertaratutakoen kop. urtean: 100, Eraitza 90



1.- Izenburua

Literatura argitalpenak

2.- Araua

AGINDUA, 2017ko otsailaren 22koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, 2017. urtean literatura argitalpenetarako diru-laguntzak emateko arauak ezarri eta deialdia egiten duena. (EHAA 40 zk., 2017ko otsailaren 27koa).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Kalitatezko euskal literaturaren ekoizpena eta euskal argitaletxeen sektorea mantentzea bultzatzen da diru-laguntza horien bidez.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Programa honetako bi modalitateekin lortu da literatura-liburu kopuru handia merkaturatzea. Horien artean asko dira jatorriz euskaraz edo gaztelaniaz egindakoak, eta honek ekartzen du euskal kulturaren zabalkundea.

Programaren errealizazioa hauxe izan da:

<i>Arloa</i>	<i>Eskaerak</i>	<i>Baiezkoak</i>	<i>Aurrekontua</i>	<i>Emandakoa</i>
Euskarazko argitalpenak	20	17	511.800 €	511.800 €
Gaztelaniazko argitalpenak	14	13	115.000 €	115.000 €

Aurrekontu programan jasotako adierazleak eta magnitudeak eta lortutako emaitzak.

- Lagundutako argitalpen proiektu kop. urtean: 500; Eraitza 450



1.- Izenburua

Euskadi Literatura Sariak

2.- Araua

AGINDUA, 2017ko otsailaren 13koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, 2017ko urtean Euskadi literatura-sariak arautu eta deitzen dituena. (EHAA 42 zk., 2017ko martxoaren 1a).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Euskadi literatura-sariak, aurreko urtean argitaratutako literatura lanen kalitatea saritzen dute, horrela literaturaren alorreko idazle, itzultzaile eta ilustratzaileen sorkuntza sustatzeko.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2017an programa honen gehienezko zenbateko orokorra 150.000 eurokoa izan da.

Deitutako sei modalitateetan esleitu dira sariak:

- Euskarazko literatura: Asier Serranoren *Linbotarrak*.
- Gaztelaniazko literatura: Fernando Arambururen *Patria*.
- Euskarazko haur eta gazte literatura: Leire Bilbaoren *Xomorropoemak eta beste piztia batzuk*.
- Euskarazko literatura itzulpena: Matias Mugicaren *Testamentuak*.
- Literatura lanaren ilustrazioa: Mikel Valverderen *Versos de Deportes*.
- Euskarazko saiakera: Arantxa Urretabizkaiaren *Bidean ikasia*.
- Gaztelaniazko saiakera: Ander Izagirrereren *Potosí*.

Aurrekontu programan jasotako indikatzaileak eta magnitudeak eta lortutako emaitzak:

- Emandako Euskadi literatura sari kop. urtean: 7; Eraitza 7



1.- Izenburua

Irudi sorkuntza

2.- Araua

AGINDUA, 2017ko irailaren 7koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, kultura sorkuntza bultzatzeko 2017. urtean diru-laguntzak emateko arauak ezarri eta deialdia egiten duena. (EHAA 173 zk., 2017ko irailaren 11koa).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen bitartez irudi sorkuntza sustatu nahi da, azken helburua, gaur egun gure Herrialdean gorakada handia duen sormen-sektore hori finkatzea bultzatzea eta laguntzea da. Programan bi laguntza-modalitate daude:

- Komiki edo nobela grafiko bat argitaratzea helburu duten ilustrazio-proiektuak sortzeko.
- Irudidun album edo liburu bat argitaratzea helburu duten ilustrazio-proiektuak sortzeko.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Programaren errealizazioa hauxe izan da:

<i>Arloa</i>	<i>Eskaerak</i>	<i>Baiezkoak</i>	<i>Aurrekontua</i>	<i>Emandakoa</i>
Komikiak edo nobela grafikoak	22	4	60.000 €	60.000 €
Albumak edo irudidun liburuak	16	3	45.000 €	45.000 €



1.- Izenburua

Kultura sorkuntza

2.- Araua

AGINDUA, 2017ko uztailaren 20koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, kultura sorkuntza bultzatzeko 2017. urtean diru-laguntzak emateko arauak ezarri eta deialdia egiten duena. (EHAA 142 zk., 2017ko uztailaren 27koa).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen bitartez kultura sorkuntza sustatu nahi da, antzerkirako testuak, gidoi zinematografikoak, musika-konposizioak egiteko eta gerora garatuko diren produktu eta prozesu artistikoen interesa eta bideragarritasuna ebaluatzeko aukera ematen duten proiektuak.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Programaren errealizazioa hauxe izan da:

<i>Arloa</i>	<i>Eskaerak</i>	<i>Baiezkoak</i>	<i>Aurrekontua</i>	<i>Emandakoa</i>
Antzerkirako testuak	34	8	52.000 €	52.000 €
Gidoi zinematografikoak	90	7	100.000 €	86.700 €
Musika-konposizioak	26	14	50.000 €	50.000 €
Ikertu	69	12	51.600 €	51.600 €
Gazteentzako literatura testuak	14	5	40.000 €	40.000 €
Ipuinak eta eleberri motzak	16	5	40.000 €	40.000 €
Guztira	249	51	333.600 €	320.300 €

Aurrekontu programan jasotako indikatzailak eta magnitudeak eta lortutako emaitzak:

- Sortutako antzerki testu berri kop. urtean: 8; Emaidza 8
- Sortutako gidoi zinematografiko kop. urtean: 10; Emaidza 7
- Egindako musika sorkuntza kop. urtean: 14; Emaidza 14
- Lagundutako sorkuntza ikerketa proiektu kop. urtean: 12; Emaidza 12
- Literaturan diruz lagundutako proiektu kop. urtean: 8; Emaidza 8



1.- Izenburua

Sorkuntzako kultura guneak (Sorgune)

2.- Araua

AGINDUA, 2016ko abenduaren 22koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, 2017. urtean praktika sortzaileak bultzatzen dituzten kulturagune independenteei zuzendutako diru-laguntzak emateko arauak ezarri eta deialdia egiten duena -Sorgune deialdia-. (EHAA 248 zk., 2016ko abenduaren 30ekoa).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen bitartez eragin nahi da kultura-edukiak ekoizteko formetan, egituretan eta eran berrikuntza sustatzeko, betiere oinarri hartuta sormena, ikerketa, esperimentazioa eta diziplina-arteko elkarrekintzaren sustapena. Labur esanda, diru-laguntzak emateko deialdi honen xedea da, arte-berrikuntzan espezializatutako zentroak sustatzea eta berrikuntza, diziplinartekotasuna eta alde anitzeko elkarrizketa oinarri dituen sormen- eta ekoizpen-eremu bat bultzatzea.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2017ko ekitaldian gehienezko zenbateko orokorra 560.000 eurokoa izan da.

Programa honetako bi laguntza modalitateen bitartez, 17 eskaeretatik 5 zentro lagundu dira, eta 560.000 euroko diru-laguntzak eman dira.

Aurrekontu programan jasotako indikatzaileak eta magnitudeak eta lortutako emaitzak:

- Lagundutako sorkuntza gune kop. urtean.: 10; Emaidza 5



1.- Izenburua

Bitartekotza eta berrikuntza kultura arloan (Bitartez)

2.- Araua

AGINDUA, 2016ko abenduaren 23koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, 2017. urtean kultura eta gizarte arloetako bitartekotza- eta berrikuntza-proiektuetarako diru-laguntzak emateko arauak ezarri eta deialdia egiten duena -Bitartez deialdia-. (EHAA 248 zk., 2016ko abenduaren 30koa).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen helburua bitartekaritza eta sare-lanaren bidez ikerketa, berrikuntza eta arte garaikidearekin konprometituta dauden proiektuak sustatzea da. Proiektu horiek lagungarri izan beharko dute hurrengoetarako:

- Desberdinen arteko elkarrizketa, kolaborazioa, baterako sorkuntza edota hibridazioa eta talentua sustatzeko, gure inguruko sortzeko gaitasuna ahal den gehiena garatzearen.
- Lurralde berean bizi diren pertsona eta talde desberdinen arteko komunikazioa, harremana eta integrazioa hobetzea.
- Lan-inguruak eta plataforma teknologikoak erabiltzea elkarlan-moduak, ikerketa eta ekoizpena areagotzeko.
- Hainbat hartzaile eta ikus-entzulerengana jotzeko moduko harreman- eta artekaritza-modu berriak sortzea, hartara bizipen esanguratsu, bereizgarri eta kualitatiboagoak eragitearren.
- Praktika kulturaletatik abiatuta berrikuntza kultural eta sozialeko estrategiak planteatzen dituzten ekimenak garatzea.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2017ko ekitaldian gehienezko zenbateko orokorra 500.000 eurokoa izan da.

Programa honen bitartez diru-laguntza eskatu duten 82 proiektutatik 18 lagundu dira, 500.000 € banatuz haien artean.

Aurrekontu programan jasotako indikatzaileak eta magnitudeak eta lortutako emaitzak:

- Lagundutako kultur proiektu berritzaileak kop. urtean: 17; Emaidza 18



1.- Izenburua

Jaialdiak

2.- Araua

AGINDUA, 2017ko irailaren 12koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, 2017. urtean kultura-arloetako jaialdiak antolatzeko diru-laguntzak emateko arauak ezarri eta deialdia egiten duena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen xedea izan da 2017ko ekitaldiko diru-laguntzak emateko baldintzak arautzea eta haietarako deialdia egitea, kultura-arloko jaialdiak antolatzeko, bereziki kultura-arlo hauetan: musika, antzerkia, dantza, liburugintza, ikus-entzunezkoak eta ikusizko arteak. Kultura-ekintzok espezializazio- edo berezitasun-maila handikoak izan beharko dute, eta interes berezia sortu Euskal Autonomia Erkidegoko kulturaren eremuan. Gizartea oro har kulturaren arlo guztietako ekoizpenetara iristen laguntzeko formula bat bilatu nahi izan da horrela.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Programa honen aurrekontua 350.000 €-koa izan da.

Nazio eta nazioarteko jaialdi lagunduen kopurua urtean: 49 eskaeretatik 25 lagundu dira diruz; 350.000 € bideratu dira horretara.



1.- Izenburua

Alderdi politikoen fundazioak

2.- Araua

AGINDUA, 2017ko irailaren 29koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, Eusko Legebiltzarrean ordezkaturik dauden alderdi politikoekin lotura duten fundazio eta elkarteentzako 2017ko diru-laguntzen deialdia egiten duena. (EHAA 195, 2017ko urriaren 11koa).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen xedea, alde batetik, pentsamenduaren arlo guztiak –batez ere, politikoa, soziala eta kulturala– aztertzeke, ikertzeke eta garatzeko askotariko proiektu, programa edo jarduerak bultzatzea eta sustatzea da, eta beste alde batetik, Eusko Legebiltzarrean ordezkaturik dauden alderdi politikoekin lotura duten fundazio eta elkartei jarduera horiek egiteko dituzten funtzionamendu-gastuak finantzatzen laguntzea.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Deialdi honetarako aurreikusita zeuden baliabide guztiak (282.500 €), erabili dira.

Diruz-lagundutako fundazioa eta elkarten zenbatekoa: 7

Burututako ekintzen zenbatekoa: 60



1.- Izenburua

Euskara toki-erakundeetan (ESEP)

2.- Araua

AGINDUA, 2017ko maiatzaren 30ekoa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, 2017-2018ko aldian Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) garatzeko diru-laguntzak emateko araubidea ezarri eta deialdia egiteko dena (ESEP deialdia). (EHAA, 2017ko ekainaren 9koa, 109. zk.).

3.- Diru-laguntza programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeetan 2017-2018 aldian ESEP garatzeko egitasmoei zuzendutako diru-laguntzak arautu eta deia egitea.

Hauek dira diruz lagundu daitezkeen egitasmoak:

- Euskararen erabilera bultzatzeko, aisiako eta kiroltako begirale eta entrenatzaileei euskara erabiltzeko estrategiak irakasteko jarduerak egitea, bai eta horiekin lotutako prestakuntza-materialak ere.
- Euskararen familia bidezko transmisioa sendotzea helburu duten jarduerak egitea.
- Euskara eta haren mundua etorkinengana hurbiltzea helburu duten jarduerak egitea.
- Haur eta gaztetxoekin ahozotasuna lantzeko programak garatzea.
- Mintzapraktika lantzea helburu duten jarduerak egitea.
- Merkataritza eta ostalaritza euskararen erabilera areagotzea helburu duten jarduerak egitea.
- "Euskarak 365 egun: hizkuntza ohiturak eta gizarte aktibazioa Euskal Herrian eta elkarrekin lantzeko proposamen berria" garatzea. Egitasmoaren edukia Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren webgunean eskuragarri egongo da.
- Aisia- eta kirol-jardunean haur eta gaztetxoaren artean euskararen erabilera areagotu eta sendotzea helburu duten jarduerak egitea. Horien artean, ondoren zehatuko diren jarduerak, egoera soziolinguistikoaren* arabera lagunduko dira:
- Ludotekak, gaztetxokoak, udaleku irekiak eta gisakoak antolatzea.
- Jai-giroko jarduerak: euskararen egunak, euskal asteak, kantu-afariak, inauteriak, gazte egunak, urteburuko egun seinalatuetako jaiak (Santa Ageda, San Joan, eta gisakoak).
- Opor eta jai egunetako jolas parkeak.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartearen

Guztira 167 eskabide jaso dira deiarri jarraituz, eta horietatik 163 lehiaketa-fasera pasatu dira. Deialdira, guztira 1.915 jarduera aurkeztu dira, eta horietatik 1.752 onartuak izan dira. Diru-laguntzetarako kopurua 2.771.000 eurokoa izan da.



1.- Izenburua

Euskara gizarte bizitzan (Euskalgintza)

2.- Araua

AGINDUA, 2017ko martxoaren 22koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, 2017. urtean gizarte-bizitzan euskara sustatzeko, garatzeko edota normalizatzeko diru-laguntzak emateko araubidea ezarri eta deialdia egiteko dena (Euskalgintza deialdia).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu honen xedea da gizarte-bizitzan euskara sustatzeko, garatzeko edota normalizatzeko lanean diharduten pertsona fisikoek edo juridiko pribatuek 2017an burutuko dituzten egitasmoei zuzenduriko diru-laguntzak arautu eta dei egitea. Diruz lagun daitezkeen egitasmoak hauek dira:

- Euskararen erabilera areagotu eta sendotzeko egitasmoak esparru ez formaletan, bereziki aisialdian garatzen direnak.
- Euskaraz ez dakiten euskal herritarrak eta etorkinak euskarara hurbiltzeko helburua duten jarduerak eta egitasmoak.
- Euskararen familia bidezko transmisioa sendotzea helburu duten egitasmoak.
- Euskararen ondareari buruzko informazioa jaso, gorde edota digitalizatu eta hedatzea helburu duten egitasmoak.
- Euskarari zuzenean lotutako alderdiak aztertzea helburu duten jardunaldiak.
- Euskalgintzan ibilbide oparoa izategatik nabarmendutako pertsonak edo elkarteak omentzeko egitasmoak.
- Euskaraz irakurtzeko zaletasuna sustatzea helburu duten egitasmoak.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Magnitudeari dagokionez, 135 egitasmo diruz lagunduko direla aurreikusten da.

189 egitasmo etorri ziren eta horietatik 130 diruz lagundu dira.

Deialdiaren diru-baliabideak: 979.200 euro.

Banatutako diru-laguntza: 979.200 euro.

Deialdiak gizartean duen eragina handia da.



1.- Izenburua

Euskara hedabideetan (Hedabideak)

2.- Araua

AGINDUA, 2016ko uztailaren 20koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, 2016-2018 epealdian euskarazko hedabideak sendotu, eraginkortu, garatu eta normalizatzeko diru-laguntzak emateko araubidea ezarri eta deialdia egiteko dena (Hedabideak deialdia).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntza deialdi honen xedea da euskarazko hedabideak sendotu, garatu eta eraginkortu, bezeroei begira irismen-maila indartuz.

Lagugarriak diren ekimenak: euskara hutsezko eguneroko prentsa inprimatua, toki-aldizkariak, aldizkako argitalpenak, irratiak, telebistak eta Internet bidezko hedabideak.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2017ko aurrekontuen programan honako bi helburu hauekin lotzen da Hedabideak deialdia:

Euskara hedabideetan eta euskararen garapen sozialean diharduten eragileen lana bultzatzea.

Goian aipatutako helburuak betetzeko ekintza bezala planteatzen da Hedabideak deialdia. Magnitudeari dagokionez, 144 egitasmo diruz lagunduko direla aurreikusten da. Dena den, zenbaki horretan bi deialdi hartu dira gogoan: oraingo hau eta Euskara Gaztelaniazko Hedabideetan izenekoa.

Euskarazko hedabideetako deialdia hiru urterako izan zen: 2016-2018.

2017ko ekitaldira etorritakoak, 2016ko berdinak izan ziren: 135 egitasmo etorri eta horietatik 124 diruz lagundu dira.

Deialdiaren diru-baliabideak: 4.875.000 euro.

Banatutako diru-laguntza: 4.875.000 euro

Deialdiak duen eragina handia da.



1.- Izenburua

Euskara gaztelaniazko hedabideetan

2.- Araua

AGINDUA, 2017ko uztailaren 12koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, 2017. urtean nagusiki gaztelania darabilten eta paperean inprimatzen diren egunkarien edizio digitaletan eta Internet bidez notiziak euskaraz ere ematen dituzten berri-agentzietan euskararen erabilera areagotzeko diru-laguntzak emateko araubidea ezarri eta deialdia egiteko dena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Euskararen presentzia hedabideetan oro har bultzatzea eta euskarazko hedabideak sendoa da programaren helburu nagusiak. Honako hauek dira diruz lagun daitezkeen egitasmoak:

- Nagusiki gaztelania darabilten paperean inprimatutako idatzizko egunkarien edizio digitalak.
- Internet bidez notiziak euskaraz ere ematen dituzten berri-agentziak.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Magnitudeari dagokionez, 144 egitasmo diruz lagunduko direla aurreikusten da. Magnitude hori Euskarazko Hedabideak deialdiari eta oraingo honi dagokie.

Euskara Gaztelaniazko Hedabideetan deialdi honetara etorritako egitasmoak 7 izan dira eta horietatik 4 diruz lagundu dira.

Deialdiaren diru-baliabideak: 400.000 euro.

Banatutako diru-laguntza: 267.885,00 euro.



1.- Izenburua

Euskara ingurune digitalean

2.- Araua

AGINDUA, 2017ko maiatzaren 16koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, 2017an ingurune digitalean euskara sustatu, garatu edota normalizatzeko diru-laguntzak emateko araubidea ezarri eta deialdia egiteko dena. (EHAA, 2017ko maiatzaren 24koa, 97. zk.).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Mota hauetako egitasmoak aurkeztu ahal izango dira:

- Interneterako euskarazko webgune edo beste formatu berritzaile batzuk (webserie, webirradi, podcast, ...).
- Mugikorrerako euskarazko aplikazioak edo APPak (telefono adimentsuetan, tabletetan edo bestelako gailu mugikorretan exekututzen diren aplikazioak, erabiltzaileari ataza bat burutzea ahalbidetzen diotenak. Banaketa-plataformen bidez eskuratzen dira).

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2017. urtean 67 egitasmo diruz lagundu da eta horren eragina bereziki egitasmo berrietan antzeman da, formatu berriei ere lekua eginez (webserieak eta chatbot-ak). Hona hemen datu adierazgarrienak:

- Deialdira etorritako eskaerak: 140
- Atzera egin duten eskatzaileak: 5
- Bazterrean utzitako egitasmoak: 24
- Lehiaketara pasatako egitasmoak: 111
- Diruz lagundutako egitasmoak: 67
- Aurkeztutako aurrekontua: 3.136.522,01 euro
- Eskatutakoa: 1.459.063,98 euro
- Esleitutakoa: 799.903,00 euro

Aurreikusitako magnitudea: 80 eskaerak.



1.- Izenburua

Euskara entitate pribatuetan (Lanhitz)

2.- Araua

AGINDUA, 2017ko ekainaren 27koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, entitate pribatuek EAEn dituzten lantokietan 2017an euskararen erabilera eta presentzia areagotzeko diru-laguntzak (Lanhitz) emateko araubidea ezarri eta deialdia egiteko dena. (EHAA, 2017ko uztailaren 17a, 135 zk.)

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu honen xedea, entitate pribatuek EAEn dituzten lantokietan 2017an euskararen erabilera eta presentzia areagotzeko diru-laguntzak emateko modua arautzea da (LanHitz).

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak hurrengoak dira: EAEn lantokiak dituzten entitate pribatuen lehen euskara-planaren diseinua eta kudeaketa-plana.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Hona hemen datu adierazgarrienak:

- Deialdira etorritako eskaerak: 153
- Baldintzak ez betetzeagatik baztertutako eskabideak: 1
- Lehiaketa fasera pasatakoak: 148
- Balorazio fasearen ostean puntuazio minimora iritsi ez direnak: 10
- Lehen euskara-planaren diseinurako eta kudeaketa plana garatzeko eskabideak: 14
- Kudeaketa-plana garatzeko eskabideak: 153
- : 138
- Aurkeztutako aurrekontua: 11.985.672,77 euro
- Eskatutakoa: 4.675.638,59 euro
- Esleitutakoa: 1.650.000 euro

2017ko memorian aurreikusitako magnitudea: 170 diruz lagundutako egitasmo.